



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 28a

143. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru-lege proiektuak:

—11-25/LEY-00010. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa. Aurkeztutako zuzenketak (3. or.).

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00019. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonak dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko. Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkeztu du (19. or.).

E SAILA:

—11-25/MOC-00161. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita araudia aldatu dezan, talde ultra, erradikal eta biolentoei kirol-estadioetan, -ekitaldietan nahiz -esparruetan sartzea eragozteko. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (22. or.).

—11-25/MOC-00162. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira eremu publikoetan eta erabilera publikoko eremu batera ematen duten leku pribatuetan nicab eta burka deritzen jantziak erabiltzeko debeku orokor bat jaso dezaten Espainiako araubide juridikoan. Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztu du (23. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/PES-00421. Galdera, proiektu teknikoki bideragarriak eta hautagarriak eduki arren, 13 gazte aurrekontu-aurreikuspen faltagatik Lurberri planetik kanpo uzteari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egin du (25. or.).

—11-25/PES-00422. Galdera, 2025eko aurrekontu orokorretako “547001 52300 6057 312804 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Transformazio digitalari buruzko plana” aurrekontu-partidari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (26. or.).

- 11-25/PES-00423. Galdera, Nafarroako Nutrizio Estrategia taxutzeari buruz 2025eko aurrekontu orokorreari aurkeztutako 390. zuzenketari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (26. or.).
- 11-25/PES-00424. Galdera, Nafarroako Ubideko proiektu fotovoltaikoan egindako aurrerabideari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (27. or.).
- 11-25/PES-00425. Galdera, lehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarritako kanpo-auditorien baldintza-agiriari buruzkoa. Cristina López Mañero andreak egin du (27. or.).
- 11-25/PES-00426. Galdera, itxaron-zerrenden datuen atzera begirako zuzenketari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (28. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/ACOP-00029. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuaren Domina ematen baitzaie Palestinako Estatuak Espainian duen enbaxadore Husni Abdel Wahed jaunari eta Salam Gaza Nafarroa elkarteari (29. or.).
- 11-25/ACOP-00030. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez bat egiten baitu HIESaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin (29. or.).
- 11-25/ACOP-00031. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez babesa eta elkartasuna erakusten baitie Gasteizko Klinikari lan egiten duten profesionalei eta erabiltzaile guztiei, eta, oro har, sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzea erabakitzen duten emakume guztiei, bai eta lan hori posible egiten duten pertsona guztiei ere (30. or.).
- 11-25/PTCI-00011. Mahaiaren erabakia, Palestinako Estatuak Espainian duen enbaxadoreari eta Salam Gaza Nafarroa Elkarteari Nafarroako Parlamentuaren Domina emateko (31. or.).
- 11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea (32. or.).

A saila:
FORU-LEGE PROIEKTUAK

11-25/LEY-00010. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa

AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 149. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru-lege proiektuari aurkezturiko zuzenketak. Foru-lege proiektu hori 2025eko azaroaren 13ko 135. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

1. ZUZENKETA

EH BILDU, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, GEROA BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuaren lehen artikuluko laugarren apartatuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

“Laugarrena. 7.z) artikulua, 2. ordinala gehitzea, z) letraren lehen hiru paragrafoak 1. ordinalaren azpian geratuz, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin”:

Zioa: Aldaketa honen ondorioak aldatzen dira 2025eko zergalditik aurrera aplikatu ahal izateko.

2. ZUZENKETA

EH BILDU, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, GEROA BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuaren lehen artikuluko bosgarren apartatuko lehen paragrafoa aldatzeko zuzenketa.

Lehen artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

“Bost. 15.3.e) artikulua. 3., 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.”

Zioa: Aldaketa honen ondorioak aldatzen dira 2026ko zergalditik aurrera aplikatu ahal izateko.

3. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 25. artikulua 2. apartatua aldatzeko zuzenketa. Aldaketak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

“2. Aurreko apartatuan xedatutakoari jarraituz kalkulaturako etekin garbi positibotik honako murrizketak eginen dira:

Ehuneko 50, etxebizitza-erabilerarako higiezin errentamendutik heltzen denean. Portzentaje hori ehuneko 60koa izanen da, baldin eta toki-administrazioaren eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerriakoren batean kokatuta badago etxebizitza.

Subjektu pasiboak aitortutako etekineta soilik aplikatuko da murrizketa”.

Zioa: neurri honekin lortu nahi da etxebizitzaren errentamenduetan lortutako etekinen murrizketa berreskuratzea, baina horiek aitortu dituzten zergadunentzat baino ez. Estatuan dagoenaren antzeko neurri bat da, eta:

- Pizgarria ematen da etxebizitzak errentan jartzeko, etxebizitza gehiago jartzen dira merkatuan, eta tratamendua hobetzen da despopulazio-arriskuan dauden landa-eremuetan kokaturiko etxebizitzentzat.

- Alokairu-errenten moderazioa sustatzen du, eskaintza handitzea eta tributazioa murriztea baitakar; hala, errentariak prezio txikiagoak eskaintzen ahal ditu, zerga-kostu txikiagoa baitu.

- Errentariari emandako kenkariarekin osatzen du pizgarria.

- Alokairu-errentak azalarazteko balio du, aitoruriko errentei baino ez baitaie aplikatzen.

4. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 36. artikularen —Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztuan eta zuzeneko zenbatespen berezian— B) 4. apartatua aldatzen da, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

36. artikulua.- Etekin garbia kalkulatzeko zuzeneko zenbatespen erraztuan eta zuzeneko zenbatespen berezian.

“4. B).3 apartatuan xedatutakoaren arabera kalkulaturiko etekin garbi positibotik hau kenduko da:

a) Oro har, etekinaren ehuneko 10.

b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren ehuneko 70.

c) Salgaien errepide-garraioko jarduerak badira, etekinaren ehuneko 70. Ondorio horietarako, salgaien errepide-garraiokotzat hartuko dira maiztaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen 722. epigrafean ageri direnak”.

Zioa: nekazaritza diru-sarrera aldakortasun handiko jardura da (klima, izurriak, merkatuko prezioak direla eta). Etekin garbia murrizteak aukera ematen du benetako kostuak hobeki islatzeko eta soberako tributaziorik ez egoteko. Zerga gutxiagok esan nahi du likidezia gehiago dagoela ustategian berriz inbertitzeko (makineria, haziak, teknologia).

5. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu bat, bederatzi bis, gehitzeko zuzenketa.

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginaren 36.B) artikularen 4. apartatuaren a), b) eta c) letrak aldatzen dira.

“a) Oro har, etekinaren ehuneko 30.

Baldin eta jardura ekonomikoak toki-administrazioaren eta despopulazioaren alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez despopulazio-arriskukotzat sailkaturiko udalerri batean badaude, ehuneko 40koa izanen da.

“b) Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jarduerak badira, etekinaren ehuneko 70.

c) Salgaien errepide-garraioko jarduerak badira, etekinaren ehuneko 70. Ondorio horietarako, salgaien errepide-garraiokotzat hartuko dira maiztaren 28ko 7/1996 Foru Legearen bidez onetsi ziren ekonomia-jardueren gaineko zergaren tarifen 722. epigrafean ageri direnak”.

Zioa: neurri honen bidez, autonomo, nekazari eta garraiolari txikientzat ezarritako murrizketak handitu nahi dira, zuzeneko zenbatespeneko modalitate bereziko jardura ekonomikoaren etekin garbia zehazteko, bai jardueretarako oro har —are gehiago despopulazio-arriskuan dauden udalerrietan kokatuta dauden jardueretarako—, bai nekazaritza, abeltzaintza, basogintza edo arrantzako jardueretarako

eta salgaien errepide-garraioko jardueretarako. Azken finean, kontua da autonomo txikienei laguntzea, eta bereziki sektore zaurgarrienetan daudenei, errenta-urritzeak pairatu dituztenei eta jarduerarekin jarraitzeko eta belaunaldi-berritzea gauzatzeko zailtasunak dituztenei.

6. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 62. artikulua —Kuota-kenkariak— 9.b) 1. apartatua aldatzen da, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

62. artikulua.- Kuotaren kenkariak.

"9. Kenkari pertsonal eta familiarrak.

b') Lehena. Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

- 800 euro urtean, lehenbizikoagatik.
- 950 euro urtean, bigarrenagatik.
- 1.100 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 1.250 euro urtean, laugarrenagatik.
- 1.400 euro urtean, bosgarrenagatik.
- 1.550 euro seigarrenagatik eta ondokoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein den ere, baldin eta eskubidea ematen badu ondoko c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horrez gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 800 euro urtean. Zenbateko hori 1.170 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arau eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan".

Zioa: jaiotza-tasa funtsezkoa da gizarte ororen iraunkortasun demografikoa eta ekonomikoa bermatuko bada. Jaiotza-tasa txikiak biztanleria zahartzea dakar, eta ondorioz, desorekak sortzen dira pentsioen, osasunaren eta gizarte ongizatearen sistemetan, lan egiteko adinean pertsona gutxiago egonen baitira mendekotasuna duen adineko biztanleria sostengatzeko. Gainera, biztanleria aktibo eta gazteak berrikuntza, kontsumoa eta hazkunde ekonomikoa bultzatzen ditu.

Ikuspegi sozialetik, belaunaldi berriak izateak kultur transmisioa, aniztasuna eta balioen jarraipena bermatzen ditu. Laguntzen du, orobat, komunitateen bizitasunari eusten, eta landaguneak jendegabetzea nahiz gizarte ehuna galtzea eragozten da.

Horregatik, garrantzitsua da politika fiskalek gure komunitateko jaiotza-tasa hobetzen laguntzea.

7. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Aldaketa egiteko zuzenketa.

PFEZari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 62. artikulua 9. apartatuaren a) letra eta a') azpiletra eta b) letraren b') azpiletraren 1. puntua aldatzea.

"a) Gutxieneko pertsonalarengatik:

Oro har, gutxieneko pertsonalarengatik kenkaria subjektu pasibo bakoitzeko 1.084 eurokoa izanen da urtean. Zenbateko horri kopuru hauek gehituko zaizkio:

a') 416 euro, hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina duten subjektu pasiboentzat. Zenbateko hori 716 eurokoa izanen da subjektu pasiboak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina baldin badu.

b') 1.016 euro, desgaitasuna duten subjektu pasiboentzat, frogatzen badute ehuneko 33ko desgaitasuna edo handiagoa eta ehuneko 65ekoa baino txikiagoa dutela. Zenbateko hori 2.916 eurokoa izanen da subjektu pasiboak frogatzen duenean ehuneko 65eko edo gehiagoko desgaitasuna duela.

c') 150 euro, zergaldian 30.000 euro baino gutxiagoko errentak, salbuetsiak barne, dituzten subjektu pasiboentzat.

b) Gutxieneko familiarrengatik:

Gutxieneko familiarrengatik kenkariak hauek izanen dira:

a') Subjektu pasiboarekin bizirik, urtean ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino errenta altuagorik, errenta salbuetsiak kenduta, jasotzen ez duen aurreko ahaide bakoitzeko, zenbateko hauetako bat:

Lehena. 416 euro, aurreko ahaideak hirurogeita bost urte edo gehiagoko adina badu edo, gazteagoa izan arren, apartatu honetako c') letran aurreikusitako kenkariak aplikatzeko eskubidea badu.

2) 716 euro, baldin eta aurreko ahaideak hirurogeita hamabost urte edo gehiagoko adina badu.

Baldin aurreko ahaide horiek familia-unitate baten parte badira, letra honetan aurreikusitako errenta-muga izanen da, familia-unitate osorako, ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) halako bi.

Ulertuko da subjektu pasiboarekin bizi direla zentro espezializatuetan bizi diren aurreko ahaideak, ekonomikoki haren menpekoak badira.

b') Lehena. Hogeita hamar urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, baldin eta subjektu pasiboarekin bizi bada eta ondorio askotarako errenta-adierazle publikoa (IPREM) baino gehiagoko errentarik ez badu urtean jasotzen, salbuetsiak bazter utzirik:

- 650 euro urtean, lehenbizikoagatik.
- 850 euro urtean, bigarrenagatik.
- 1400 euro urtean, hirugarrenagatik.
- 1700 euro urtean, laugarrenagatik.
- 2200 euro urtean, seigarrenagatik eta hurrengoengatik.

Zenbateko horiek orobat aplikatuko dira ondorengo ahaide ezkongabe bakoitzeko, haren adina zein den ere, baldin eta eskubidea ematen badu ondoko c') letran aurreikusitako kenkariak baliatzeko.

Horrez gain, letra honetan ezarritako zenbatekoak aplikatzeko eskubidea ematen duten hiru urte baino gutxiagoko ondorengo ahaide edo haur adoptatu bakoitzeko, 644 euro urtean. Zenbateko hori 1.170 eurokoa izanen da urtean, baldin eta, aplikatzekoak diren arau eta hitzarmenen arabera, adopzioak nazioartekoak badira. Adopzio kasuetan, kasuko kenkaria aplikatuko da Erregistro Zibileko izen-ematearen zergaldian eta hurrengo bietan".

Zioa: gutxieneko pertsonala eta familiarra handitzea proposatzen da, adinagatik, desgaitasunagatik eta seme-alabak eta aurreko ahaideak zaintzeagatik

egoera pertsonal eta familiar bereziak dituzten subjektu pasiboen fiskalitatea hobetze aldera. Neurri horrek arindua ekarriko die, batez ere, errenta txiki eta ertainei, familiei, desgaitasuna dutenei eta hirugarren adinekoei, haien zerga-karga murriztea eta eskuragarri duten errenta areagotzea eraginen baitu; hori lagungarri izanen zaie, azken urteotan, eta inflazioaren ondorioz batez ere, pairatu duten narriadura ekonomikoari aurre egiteko. Jaiotzak sustatzeko ere balioko du.

8. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Lehenengo artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren (4/2008 Legegintzako Foru Dekretua, ekainaren 2koa) 62. artikulua —Kuota-kenkariak— aldatzen da 15. puntu berria gehituz, eta aldaketak 2026ko urtarriaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

62. artikulua.- Zeliakiak jotako zergadun edo familiar bakoitzeko kenkariak.

"15. 600 euroko kenkaria zeliakia diagnostikatu duen familia-unitateko kide bakoitzeko".

Zioa: zeliakia duten pertsonen glutenik gabeko dietak dakarkien gainkostua arintzeko neurri bat da. Neurriak glutenik gabeko produktuetan duten 1.000 bat euroko urteko batez besteko gainkostua konpentsatu nahi du.

9. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Aldatzeko zuzenketa.

«Hogeita hiru bis apartatu berria.

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bateginari hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria gehitzea. Etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obrenagatik kenkaria.

"1. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murrizteko asmoz 2022an, 2023an, 2024an, 2025ean eta

2026an eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 20 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2026ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murriztu dela ulertuko da, soilik, ehuneko 7 murrizten bada, gutxienez ere, obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako etxebizitzaren energia-efizientziari buruzko ziurtagirian jasotako berokuntza- eta hozkuntza-eskariaren adierazleen batura, obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagirikoekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2027ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehieneko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da.

2. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzeko asmoz 2022an, 2023an, 2024an, 2025ean eta 2026an eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 40 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2026ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, obra horiek egin diren etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetu dela ulertuko da, soilik, gutxienez ere ehuneko 30 murrizten denean energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren adierazlea, edo etxebizitzaren energia-kalifikazioaren hobekuntza bat lortzen denean, halako moldez non, kalifikazio-eskala berean, «A» edo «B» energia-klasea lortzen den, hori frogaturik obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako energia-efizientziaren ziurtagiriaren bidez, obren hasiera aurretik jaulki zenarekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari horren gehieneko oinarria urteko 7.500 eurokoa izanen da.

3. Nagusiki etxebizitza-erabilerakoak diren eraikinetan kokaturiko etxebizitzaren jabe diren zergadunek, baldin eta eraikin horietan 2022an, 2023an, 2024an, 2025ean, 2026an eta 2027an energia-birgaitze obrak egin badira, zilegi izanen dute aipa-

tu obregatik epe horretan ordaindutako kopuruen ehuneko 60 kentzea. Ondorio horietarako, eraikinaren energia-birgaitze obratzat joko dira halakoak non etxebizitza kokatzen den eraikinaren energia-efizientzia hobetzea lortzen baita, eta frogatu egin beharko da, eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriaren bitartez, zeina teknikari eskudunak jaulkitako baitu obrak egin direnean, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren beherakada izan dela, energia-ziurtagirian jasoa eta gutxienez ere ehuneko 30ekoa edo, bestela, eraikinaren energia-kalifikazioa hobetu dela, kalifikazio-eskala berean «A» edo «B» energia-klasea lorturik, obren hasiera aurretik jaulkitako ziurtagiriarekin alderatuta.

Etxebizitzekin parekatuko dira haiekin batera erosiak izan ziren garaje-plazak eta trastelekuak.

Ez dute kenkari hori egiteko eskubiderik emanen jarduera ekonomiko bati atxikita dagoen etxebizitza-zatian eginiko obrek.

Kenkaria 2022, 2023, 2024, 2025, 2026 eta 2027ko zergaldietan aplikatuko da haietako bakoitzean ordaindutako kopuruei dagokienez, baldin eta energia-efizientziaren ziurtagiria kenkaria aplikatuko den zergaldia bukatu aurretik jaulki bada. Ziurtagiria jaulkitzen denean obra horiengatik kopuruak ordaindu ziren zergaldiaren ondorengo batean, kenkaria eginen da ziurtagiria jaulkitzen den aldian. Nolanahi dela ere, ziurtagiri hori 2028ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da. Kenkari horren gehieneko oinarria urteko 5.000 eurokoa izanen da. Kenkariaren urteko gehieneko oinarria gainditzeagatik kendu gabe geratu diren kopuru ordainduak kentzen ahalko dira, muga berarekin, hurrengo lau ekitaldietan. Kenkariaren oinarri metatuak ezin izanen du ezein kasutan 15.000 euro gainditi.

4. Ez da eskubiderik egonen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak aplikatzeko, baldin eta obra jarduera ekonomiko bati atxikitako etxebizitza-parteetan, garaje-plazetan, trastelekuetan, lorategietan, parkeetan, igerileku eta kirol-instalazioetan eta antzeko beste elementu batzuetan egin bada.

Etxebizitza batean eginiko obra berak ez du ezein kasutan eskubiderik emanen 1. eta 2. apartatuetan jasotako kenkariak egiteko. Era berean, kenkari horiek ez dira aplikagarri izanen halako kasuetan non frogaturiko hobekuntza eta ordainduriko kopuruak eraikinaren osotasunean gauzaturiko ekimenen ondoriozkoak izan eta xedapen honen 3. apartatuan jasotako kenkaria aplikatzekoa denean.

1., 2. eta 3. apartatuetan jasotako kenkarien oinarria 64.4 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da, eta soilik hartuko dira kontuan obra horiek egiten dituzten pertsona edo erakundeei, bai eta aipatu ziurtagiriak ematen dituzten pertsona edo erakundeei ere, kreditu edo zordunketa txartel bidez, banku transferentziaren bidez, txeki izendunen bidez edo kreditu erakundeetako kontuetan egindako diru-sarreraren bidez ordaindutako zenbatekoak. Ezein kasutan, ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen legezko diruaren ematean bitartez ordaindutako kopuruek.

Ondorio horietarako, eginiko obregatik ordaindutako kopurutzat joko dira obrak egiteko beharrezkoak direnak, barne harturik lanbide-ordainsariak, proiektu teknikoak idaztearen kostuak, obra-zuzendaritzarenak, obra edo instalazioak egitearen kostuak, ekipamendu eta materialetan eginiko inbertsioak eta horien garapenerako beharrezkoak diren beste gastu batzuk, bai eta energia-efizientziari buruzko kasuko ziurtagiriaren jaulkipena ere.

Nolanahi ere, kopuru horietan ez dira aintzat hartuko jatorri fosileko erregaiek darabiltzaten ekipamenduak instalatu edo ordeztzeko kostuak.

Jabeen erkidego batek eginiko obren kasuan, zergadun bakoitzaren kenkariaren oinarria osa dezakeen zenbatekoa, 3. apartatuan aipatua, suertatuko da jabeen erkidegoak ordaindutako kopuruei, aurreko paragrafoan aipatuei, partaidetza-koefizientea aplikatuz.

5. Aurreko apartatuetan aipatuta datozen energia-efizientziako ziurtagiriak jaulki eta erregistratuak izan beharko dira ekainaren 1eko 390/2021 Errege Dekretuari jarraikiz, zeinaren bidez onesten baita eraikinen energia-efizientziaren ziurtagiria egiteko oinarritzko prozedura.

Kenkari horiek egiteko eskatzen diren baldintzak betetzen direla frogatzeko, baldin izanen dira obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagiriak, baldin eta ez bada bi urteko epea igaro jaulkipen dataren eta obra-hasieraren dataren artean.

6. Energiaren eta etxebizitzaren alorretan eskudun diren departamentuek informazioa helarazi beharko diote Nafarroako Foru Ogasunari energia-efizientziari buruzko ziurtagiri erregistratuei eta eman diren laguntzen ebazpen behin betikoei buruz, etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obregatik emanak izan direnean. Kasuko katastroerreferentziako zenbakiak gehituko zaizkio informazio horri.

Tributu-alorrean eskudun den departamentuko kontseilariaren foru agindu bidez zehazten ahalko da zein den eman beharreko informazioa eta informatze-betebehar hori nola eta zer epetan bete behar den”.

Zioa: energia-efizientzia dakarren birgaitzeagatik hobari fiskalak luzatu eta hedatu behar dira.

10. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa:

Xedapen gehigarri bat gehitzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina onetsi zuen 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuari.

“Oinarri orokorrari aplikatzekoa den tarifa deflatatzea, bai eta gutxieneko pertsonalagatiko eta gutxieneko familiarragatiko kenkariaren zenbatekoak ere.

1. Foru lege honetako 59.1 artikuluko likidazio-oinarri orokorra deflaktatu egingen da Nafarroako Kontsumo Prezioen Indizearen bilakaera ehuneko 2 baino gehiagokoa denean. Deflatatzearen zenbatekoa egingen da aintzat harturik Nafarroako kontsumo prezioen indizeak abenduan agertzen duen urtearteko aldatze-tasa, hurrengo zergaldirik aurrerako eraginez.

2. Halaber, Foru Lege honetako 62.9 artikulua hizpide dituen gutxieneko pertsonalagatiko eta gutxieneko familiarragatiko kenkariaren zenbatekoak aurreko 1. apartatuan zehazturiko modu berean handituko dira”.

Zioa: deflaktazio automatikoa, gure zerga-legeak horrela jasotakoa, bidezkoagoa eta osoagoa da inflazioak familia-errentei dakartzkien desorekei aurre egiteko orduan, beste herrialde batzuetan jada gertatzen den bezala.

11. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Beste apartatu bat gehitzeko zuzenketa:

Beste xedapen gehigarri bat gehitzea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginari (ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretua).

Etxebizitza konturako ekarpenengatiko kuota-ren kenkaria.

"1. Zergadunek kuota osotik kentzen ahalko dute kreditu entitateetan sartutako kopuruaren ehuneko 25, baldin eta kontuek betetzen badituzte erregelamenduz ezarritako formalizazio- edo xedatze-betekizunak, betiere lehen etxebizitza erostera edo ohiko etxebizitza birgaitzera bideratzen badira. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabili direla ulertuko dira beste edozein zergapetze mota batetik bereizitako kontuetan kreditu entitateetan gordailututako kopuruak, betiere haien saldoak subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko bakarrik erabiltzen badira.

Kenkari horren gehieneko oinarria urteko 16.000 eurokoa izanen da.

2. Kenkarirako eskubidea honako kasu hone-tan galduko da:

a) Subjektu pasiboak etxebizitza kontuan gordailututako kopuruak erabiltzen dituenean ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko ez beste xede batzuetarako. Kopuruaren zati bat erabiliz gero, zergadunak erabilitako kopuruak lehendabizi gordailutakoak direla ulertuko da.

b) Gordailututako kopuruak lehen etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabili ez badira hamar urteko epean, kontua ireki zen zergaldia bukatzen denetik hasita.

c) Geroago etxebizitza erosi edo birgaitzean, kontzeptu horrengatik kenkari eskubidea sortzen duten baldintzak betetzen ez dituenean.

4. Subjektu pasibo bakoitzak etxebizitza kontu bakarra baino ezin du izan.

4. Kenkaria aplikatzeko ondokoa eskatuko da:

Lehena. Etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko bizilekua izatea hiru urteko epean jarraian. Hala ere, etxebizitza izaera hori izan zuela ulertuko da, nahiz epe hori ez iragan, subjektu pasiboa hiltzen bada edo etxebizitza aldatzera nahitaez behartzen duten inguruabarrak gertatzen badira.

Bigarrena. Subjektu pasiboa etxebizitzan benetan bizitzea era etengabea hamabi hilabetez, etxebizitza erosi edo obrak bukatzen ziren egunetik kontatzen hasita. Hala ere, subjektu pasiboak ohiko etxebizitza badu daukan kargu edo enpleguarengatik, epe hori kargu uztearen egunetik hasiko da kontatzen.

Bizilekua den edo izanen den etxebizitza erosteko edo birgaitzeko erabili direla pentsatuko da".

Zioa: uneotan areagotu egin da etxebizitzaren arazoa, eta biziki zaila da lehendabiziko ohiko etxebizitza erostea, batez ere gazteentzat; horrengatik, pentsatzen dugu neurri fiskal ona dela aurrezteko tresna bat laguntzea, aurrezkia gehie-nez 10 urteren buruan etxebizitza erosteko erabil dadin. Era horretan zergadunek, batez ere gazte-ek, aurrezteko pizgarria dute, babestea merezi duen helburu batekin. Kenkariaren gehieneko zenbatekoa 4.000 eurokoa (16.000ren ehuneko 25) izanen da urtean subjektu pasibo bakoitzeko.

12. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

PFEZari buruzko Foru Legearen Testu Bategi-nari xedapen gehigarri bat gehitzea.

Xedapen gehigarria.

"2025eko ekainaren 30a baino lehen, Nafarroako Gobernuak lege-proiektu bat aurkeztuko du, zeinean pizgarri fiskal bat ezarriko duen, laneko etekin garbietan —bai profesionalak bai enpresarialak— ehuneko 100era arteko murriztapena egiteko modua emanda; horrela, eraginkor izanen da etekin horien ez-tributatzea, zergaren sortzapen-datan 30 urte baino gutxiago dituzten subjektu pasiboentzat, baldin eta urteko 30.000 euroko baino gutxiagoko errentak badituzte pizgarri fis-kala aplikatzen den urtean. Murrizketa modu maila-katuan eta linealki txikituko da zerora arte urteko 30.000 euro eta 40.000 euro bitarteko errentak dituzten subjektu pasiboentzat.

Zioa: zuzenketa honen bidez, laneko etekin garbien —profesionalak edo enpresarialak— ehuneko 100eko murrizketa ezarri nahi da 30 urte baino gutxiago dituzten eta 30.000 eurotik behera-ko errentak dituzten pertsonentzat. Horrela, per-sona horiek ez dute PFEZik ordaindu beharrik izan-en errenta horiengatik. Pizgarria aplikatzen zaie-n errenta-mugetan tributazio-jauzirik egon ez dadin, ezartzen da murrizketa modu mailakatuan txikituko dela 30.000 euro eta 40.000 euro bitarteko erren-te-tan; hau da, 40.000 eurotik gora, murrizketa zero izanen da. Hori horrela, 30.000 eurotik 40.000 eurora bitarte, salbuespena txikituz joanen da, 40.000 eurora iritsitakoan guztiz desagertu arte.

Neurriak helburu hauek ditu:

Errenta txiki eta ertainak dituzten gazteen errenta erabilgarria areagotzea; lanean hasi berriak dira, eta laguntza behar dute bizitzeko, independizatzeko, etxebizitza erosteko edo alokatzeko, ekin-tzaile izateko.

- Gazteak Nafarroan errotzea.
- Kostu mugatua duen baina oso bizkorgarria den neurri batekin.
- Errenta txiki eta ertainetara bideratua, horiek behar baitute laguntza. Progresibitatea bultzatzen duen neurria da.
- Eta modu mailakatuan txikitzen da, jauzirik egon ez dadin, 40.000 eurotik gorako errentetara arte, jotzen baita horiek ez dutela laguntza behar.

13. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu bat gehitzeko zuzenketa (lehenengo-aren aurretik).

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 5. artikulua 7. apartatua aldatzen da.

"7. Subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko foru araudian definitzen denaren arabera, 400.000 euro arte gehienez ere."

Zioa: ondare txikiagoek zergan tributatu ez dezaten, eta salbuetsita dagoen ohiko etxebizitzaren balioa eguneratzeko.

14. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu bat, bat bis, gehitzeko zuzenketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 28. artikulua 1. apartatua aldatzen da.

"1. Likidazio-oinarria kalkulatzeko, zerga-oinarria 1.500.000 euro murriztuko da salbuetsita dagoen gutxienekoagatik".

Zioa: ondare txikiagoek zergan tributatu ez dezaten.

15. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu bat, bat ter, gehitzeko zuzenketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 13/1992 Foru Legearen 31. artikulua aldatzen da.

"1. Zerga honen kuota osoa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kuota osoarekin batera, ez da azken horren zerga-oinarriko baturaren ehuneko 60tik goitikoa izaten ahal, eta, ondorio hauetarako, ez da kontuan hartuko izaeragatik edo xedeagatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren kargapean dauden etekinak sortzeko ahalmenik ez duten ondare-elementuei dagokien kuotaren zatia.

2. Bi kuoten baturak 1. apartatuan aipatzen den muga gainditzen baldin badu, zerga horren kuota gutxituko da muga horretara iritsi arte; gutxitze hori ezin izanen da ehuneko 80 baino handiagoa izan".

Zioa: ondarearen gaineko zergaren gutxieneko tributazioa EAEko eta Espainiako gainerako lekuetako tributazioarekin parekatzea, eta konfiskagarritasun-arazoak saihesteko zerga horretan.

16. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 43. artikulua—Likidazio-oinarri negatiboen murriztapena— aldatzea, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

43. artikulua. Likidazio-oinarri negatiboen murriztapena.

"1. Aurre-aurreko hogeita hamar urteetan amaitutako zergaldietako likidazio-oinarri negatiboek likidazioa edo autolikidazioa izan badute, zerga-oinarri positiboa murrizten ahal dute, horren ehuneko 70eko mugarekin, 42.1 artikulua aipatzen dituen murriztapenen zenbatekoa kendu eta gero, hala badagokio. 1º eta 2º.

Edozein kasutan, zergaldian konpentsatzen ahalko diren likidazio-oinarri negatiboen gehiengoko zenbatekoa milioi bat eurokoa izanen da. Zergaldiak urtebete baino gutxiago irauten badu, muga hori hau izanen da: milioi bat euro bider zergaldiaren iraupenak urtearekiko duen proportzioa.

Likidazio-oinarri negatiboen konpentsazioaren mugatzea ez da aplikatzekoa izanen zergadunaren hartzekodunekin lortutako akordio baten ondoriozkoak diren kitei edo itxaroteei dagozkien errenten zenbatekoan. Errenta horiekin konpentsatzen diren likidazio-oinarri negatiboak ez dira kontuan hartuko aurreko lerrokadan aipatzen den 1 milioi euroko zenbatekoari dagokionez.

Apartatu honetan ezarritako muga ez da aplikatuko entitatea desegiten den zergaldian, salbu eta desegitea VIII. tituluko VIII. kapituluan ezarritako zerga-araubide berezia aplikatzekoa zaion birmoldaketa baten ondorioa bada.

2. Ezin izanen dira konpentsatu likidazio-oinarri negatiboak ondoko inguruabarrak biltzen direnean:

a) Kapital sozial gehiena edo entitatearen emaitzetan parte hartzeko eskubide gehienak pertsona edo entitate lotu batek eskuratzea edo pertsona edo entitate lotuen multzo batek, likidazio-oinarri negatiboa dagokion zergaldia bukatu ondoren.

b) Aurreko letrak aipatutako pertsonak edo entitateek partaidetzaren ehuneko 25 baino gutxiago izatea likidazio-oinarri negatiboa dagokion zergaldia bukatzean.

c) Eskuratutako entitatea egoera hauetako batean egotea:

1. Eskuratu aurreko 3 hilabeteetan jarduera ekonomikorik egin ez badu.

2. Eskurapenaren hurrengo 2 urteetan aurretiaz egindako jarduera ez den beste bat edo jarduera ekonomiko gehigarriren bat gauzatzen badu, eta haren eraginez, hurrengo urte horietan negozio zifraren zenbateko garbiak entitatearen aurreko 2 urteetako negozio zifraren batez beste ko zenbatekoaren ehuneko 50 gaingiditzen badu. Jarduera desberdin edo gehigarri gisa hartuko da Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalen hura beste talde bati dagokionean.

3. Ondare-entitate bat bada.

4. Entitateari baja egin bazaio Entitateen Aurkibidean, 71.1.b) artikuluan xedatutakoa aplikatuta. IV. TITULUA 55.

3. Zerga-oinarria positiboa den lehen zergaldia hasten denetik hurrengo hogeita hamar urteetan, jarraian, amaitzen diren zergaldiei dagozkien zerga-oinarrietan murriztapena egiten ahal dute entitate eratu berriek sortutako likidazio-oinarri negatiboek, eta kasu horretan ez da aplikatzekoa izanen artikuluko honen 1. apartatuaren lehen lerrokadan ezarritako muga zerga-oinarri positiboa sortzen den lehenengo hiru zergaldietan.

Enpresen oinordetza edo jarraipen kasuak ez daude sartuta apartatu honetan”.

Zioa: enpresa batek galerak dituenean, neurri honek laguntzen du enpresaren finantza egoera egonkortzen galaren aldi baten ondotik, eta horrela enpresaren jarraipenari laguntzen zaio.

Tresna hori gabe, aurreko urteetan galerak eta hurrengoetan irabaziak izandako konpainia batek zergak ordainduko lituzke galerarik inoiz izan ez balu bezala; hori ez litzateke bidezkoa izanen eta baliteke haren bideragarritasuna arriskuan jartzea. Hala, konpentsatzeko denborazko muga ezabatzean (30 urte praktikan ezabatzea da ia), segurtasun juridikoa ematen zaie enpresei nahiz ekin-tzaileei, eta inbertsioa sustatzen da, baita hasierako galerak ohikoak diren ziklo luzeko sektoreetan ere.

Gainera, aktibo fiskala epe luzeagoan sortzen da, oinarri negatiboak kreditu fiskal gisa kontabilizatzen baitira; horrek hobetu egiten du enpresaren irudi finantzarioa, eta garrantzitsua izan liteke finantzaketa lortzeko, ordainduko ez diren etorkizuneko zergak baitira.

17. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea. 44. artikulua — Inbertsioetarako erreserba berezia — aldatzen da, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

44. artikulua. Inbertsioetarako erreserba berezia.

“1. Zerga-oinarri positiboa ehuneko 50 murriz daiteke, baldin eta kantitateak, ekitaldiko kontabilitateko mozkinetakoak izanik, inbertsioetarako erreserba berezi batera bideratzen badira, atal honetan azaltzen diren baldintzetan eta beharkizunekin.

Portzentaje hori ehuneko 80koa izanen da enpresa txiki izaera duten zergadunen kasuan.

2. Murritzapen hau zerga-oinarriaren ehuneko 45ekoa izanen da, gehienez ere, oinarria minoratu ondotik, aurreko artikulua aipatzen dituen likidazio-oinarri negatiboetan.

3. Atal honetan araututako onura fiskala ez zaie aplikatuko zergadunak aitortzen ez dituen erren-tei”.

Zioa: Pizgarriak behartzen du mozkinak aktibo produktiboetan berriz inbertitzera (ibilgetu materiala, ukiezina, proiektu teknologikoak, ingurumen hobekuntzak eta abar), eta horrek enpresen modernizazioa, berrikuntza eta lehiakortasuna bultzatzen ditu.

Zergak murriztu eta mozkinak berriz inbertituta, enpresek ondare-egitura indartzen dute, eta horrek finantzaketa eskuratzeko eta balioa epe luzera handitzea errazten du.

18. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Artikulu bat, hirugarrena, ordeztuko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea. Bi

51. artikulua —Karga-tasak— aldatzen da, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

51. artikulua. Karga-tasak.

“1. Ondokoak izanen dira karga-tasa orokorrak:

a) Ehuneko 25.

b) Ehuneko 20, enpresa txikientzat.

Karga-tasa ehuneko 19 izanen da mikroenpresatzat hartzen diren enpresa txikientzat.

b) letra honetan arautzen diren karga-tasak aplikatzen ahalko dira, soilik, zergaldiko negoziozifren zenbateko garbia zergaldi horretako zerga-oinarriaren ehuneko 50 bada, gutxienez.

Letra honetako karga-tasak ez zaizkie inoiz aplikatuko ondare-entitatetzat hartzen diren entitateei.

2. Honakoek ehuneko 20ko zerga-tasa ordainduko dute:

a) Partez salbuetsiak dauden entitateak, 130. artikuluan aipatuak.

b) Aseguru orokorretako mutuak eta Gizarte Segurantzaren gizarte aurreikuspeneko entitateak, beren araudiak ezarritako beharkizunak betetzen badituzte.

c) Elkarrekiko berme sozietateak eta birfidantzamendu sozietateak, Elkarrekiko Berme Sozietateen Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 11ko 1/1994 Legean arautzen direnak eta Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatuta daudenak”.

Zioa: zerga-tasa txikiagoak esan nahi du enpresek mozkinen gaineko zerga gutxiago ordaintzen dituztela; horrek enpresen likidezia areagotzen du eta ahalbidetzen die baliabide gehiago bideratzea inbertsiora, berrikuntzara eta langileak kontratatzea. Hori batez ere garrantzitsua da ETEentzat eta mikroenpresentzat, marjina txikiagoak izaten dituztelako.

Karga murriztea pizgarria da enpresa berriak sortzeko eta lehendik daudenak hedatzeko, errentagarritasun garbia hobetzen baitu. Horrek laguntzen du enpresa ehuna lehiakorragoa izatea tasa apalagoak dituzten beste erkidego batzuen aldean.

19. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu bat, bi bis, gehitzeko zuzenketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 51. artikulua 1. apartatua aldatzen da.

“1. Ondokoak izanen dira karga-tasa orokorrak:

a) Ehuneko 24.

b) Ehuneko 19, enpresa txikientzat.

Karga-tasa ehuneko 15 izanen da mikroenpresatzat hartzen diren enpresa txikientzat.

b) letra honetan arautzen diren karga-tasak aplikatzen ahalko dira, soilik, zergaldiko negoziozifren zenbateko garbia zergaldi horretako zerga-oinarriaren ehuneko 50 bada, gutxienez.

Letra honetako karga-tasak ez zaizkie inoiz aplikatuko ondare-entitatetzat hartzen diren entitateei.

Zioa: enpresen fiskalitatea hobetzea, eta Nafarroa berriz erakargarria izan dadila enpresa-proiektuak ezartzeko eta atxikitzeko. Aberastasuna, inber-

tsio gehiago, enplegu gehiago eta diru-bilketa handiagoa ekarriko ditu horrek.

20. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu bat, bi ter, gehitzeko zuzenketa.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen 53. artikuluen 2. apartatua aldatzen da.

53. artikulua. Gutxieneko tributazioa.

"2. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko, honela jokatu da:

1. Kuotan aplikatutako hobariak karga-tasaren artean zatituta ateratzen den adina minoratuko da likidazio-oinarria, ekitaldian aplikaturik.

2. Lortutako zenbatekoaren gainean ehuneko hauek aplikatuko dira:

a) 51.1.a) artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, ehuneko 15.

b) 51.1.b) artikuluko lehen paragrafoan edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, ehuneko 13.

c) 51.1.b) artikuluko bigarren paragrafoan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen duten zergadunen kasuan, ehuneko 10.

3. Arestiko eragiketaren emaitzari, kasua bada, honako zenbateko hauek kenduko zaizkio:

a) Ekitaldian aplikatutako kenkariak, nazioarteko zergapetze bikoitza galarazteko.

b) Produkzio zinematografikoetan eta ikus-entzunezko serieetan egindako inbertsioengatik eta parte hartzeagatik kenkariak, 65. eta 65 bis artikuluetan arautuak.

c) 61. eta 62. artikuluetan araututako ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik edo berorietan parte hartzeagatik kenkarien ehuneko 50. Zergadunek 51.1.b) edo 51.2 artikuluan ezarritako karga-tasaren arabera tributatzen badute, aipatu ehuneko ehuneko 100 izanen da.

Arestiko b) eta c) letretan ezarritakoaren ondorioetarako, ekitaldian sortutako kenkariak eta aurreko ekitaldietan aplikatu gabe gelditu direnak

zenbatu egingen dira. Gutxieneko tributazioaren zenbatekoa zehazteko kontuan hartzen diren kenkariak zergaldian aplikatu beharko dira.

3. Artikulu honetan ezarritakoa ez zaie aplikatu 51.3 artikuluko entitateei, 51.1 artikuluan aipatzen diren karga-tasa orokorrak aplikatzen zaizkien emaitzei dagokienez".

Zioa:

– Enpresen fiskalitatea hobetzea, eta Nafarroa berriz erakargarria izan dadila enpresa-proiektuak ezartzeko eta atxikitzeo. Aberastasuna, inbertsio gehiago, enplegu gehiago eta diru-bilketa handiagoa ekarriko ditu horrek.

– Nafarroako enpresa-fiskalitatea EAEkoarekin eta Espainiako gainerako lekuetakoarekin parekatzea, gaur egun dagoen arrakala murriztu, eta zergaren tasa nominalak parekatzeko.

– Kanpoan gure tasei buruz dagoen pertzepzioa hobetzea, beste lurralde batzuetakoekin alderatzean.

– Enpresa handiei aplikatzen zaien gutxieneko tasa nazioartean araututako gutxieneko zergarekin parekatzea, eta enpresa txikiei eta ertainei aplikatzen zaizkien gutxieneko tasak aurreko zuzenketan proposatutako beherapenera egokitzea.

21. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

61. artikulua —Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik— aldatzen da, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

61. artikulua. Kenkaria ikerketa eta garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatik.

"1. Ikerketa eta garapen jardueretan arituz gero, eskubidea izanen da kasuan kasuko zergaldian eginkizun horiengatik izandako gastuen ehuneko 40ko kenkaria egiteko kuota likidoan.

Aurreko lerrokadan adierazitako kenkariak gainera, zergaldi horretan izandako gastu hauengatik ehuneko 20ko kenkari gehigarria aplikatuko da:

a) Entitatearen langileria gastuak, ikerketa eta garapen jardueretara arduraldi osoarekin atxikita dauden ikertzaile kualifikatuak.

b) Espainian edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko kide den edozein estatutan kokatutako unibertsitate, ikerketa-erakunde publiko edo zentro teknologikoekin kontratatutako ikerketa- eta garapen-proiektuei dagozkien gastuak, bai eta Nafarroako I+G+B Sistemaren (SINAI) betearazpen-eragile gisa egiaztatutako enpresa-arloko I+G+Bko unitateekin kontratatutakoak ere, Zientzia eta Teknologiari buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legean jasotakoak.

Zergaldian aurreko kontzeptu guztiengatik egingako gastuak pertsona edo entitate lotu bati erositako ondasun edo zerbitzuetatik badatoz, kenkariaren oinarria ez da izan pertsona edo entitate lotuan ondasun edo zerbitzu horiek izandako kostua baizik, aski justifikatzen bada, betiere”.

Zioa: I+G+Bko (ikerketa, garapen eta berrikuntza) fiskalitatea laguntzea funtsezkoa da, zuzeneko eragina baitu lehiakortasunean eta hazkunde ekonomikoan; izan ere, kenkari fiskalek proiektu berri-tzaileetan inbertitzearen kostua murrizten dute, enpresek arrisku finantzario txikiagoa hautematen dute eta I+G+Bn gehiago inbertitzera animatzen dira.

Gainera, pizgarri horiek gabe, konpainia anitzek berehalako itzulkina duten inbertsioak lehenesten

dituzte, eta kontuan hartu behar da I+G+Bn inbertitutako euro bakoitzak zeharkako itzulkinak sortzen dituela: prozesuak hobetzea, lehiakortasuna handitzea, esportazioak eta BPGaren hazkundera.

22. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 63. artikulua — Babesletza jarduerak eragindako publizitate gastuengatik kenkaria— aldatzen da, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

63. artikulua. Babesletza-jarduerak eragindako publizitate-gastuengatik kenkaria.

“1. Interes sozialaren deklarazioa duten kirol, kultur eta gizarte laguntzako jardueren babesletza kontratuak eragindako publizitate gastuek eskubidea emanen dute kuota likidoan kenkaria egiteko, zergaldian ordaindutako zenbatekoei, ondasun edo eskubideen entreei eta zergaldian egindako zerbitzuen prestazioei eskala honetako ehunekok aplikatuta ateratzen den zenbatekoa adinakoa:

KENKARIAREN OINARRIA	APLIKATU BEHARREKO PORTZENTAJEA
30.000 euro bitarte, hori barne	Ehuneko 40
Soberakina 60.000 euro bitarte, hori barne	Ehuneko 45
Soberakina 60.000 eurotik gora	Ehuneko 50

Interes sozialaren deklarazioa Foru Komunitateko Administrazioaren departamentu eskudunek egingen dute, eta bertan tramitatuko dira kasuan kasuko espedienteak”.

Zioa: kenkari horiek erabili behar ditugu zenbait sektoretan, hala nola kirolean, kulturen eta sektore sozialetan finantzaketa pribatua bultzatzeko tresna gisa. Hala, gizartearen eragin positiboa duten jarduerak garatzean sustatzen da, funts publikoen mende bakarrik egon gabe. Gastu kengarria denez, babesletza tresna erakargarriagoa da enpresentzat, onura fiskal gehiago eta publizitate itzulkina konbinatzen baititu. Horrek inbertsioa sustatzen du kirolaren, kulturen eta gizartearen arloko ekitaldietan, eta ikus-

gaitasuna nahiz markaren posizionamendua sortzen ditu.

23. ZUZENKETA

EH BILDU, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, GEROA BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru-lege proiektuaren hirugarren artikuluari bost bis apartatua gehitzeko zuzenketa.

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Bost bis. 64. artikulua, izenburua eta C) letra, C) letraren edukia D) letra berri batera pasatuta, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietatik aurrerako ondorioekin:

“64. artikulua. Energia berriztagarrien instalazioetan, mugikortasun elektrikoan eta deskarbonizazioan eginiko inbertsioengatik kenkariak”.

“C) Deskarbonizazioan inbertitzeagatik kenkaria.

1. Jarduera ekonomikoari atxikitako ibilgetu materialaren elementu berrietan egiten diren inbertsioek amaierako energia-kontsumoa gutxienez 30.000 kW orduko urteko murriztea lortzen badute, ehuneko 15eko kenkaria egiteko eskubidea emanen dute.

Kenkariaren oinarria kalkulatzeko, inbertsioaren zenbatekoari inbertsioak eragindako energia-aurrezkiaren transmisioaren ondorioz jasotako zenbatekoa kenduko zaio.

Tributuen arloan eskumena duen departamentuaren titularraren foru agindu bidez zehazten ahaliko dira kenkariaren oinarriaren parte diren gastuak.

Kenkaria egiteko eskubidea sortzen den unea Energia Plangintza eta Koordinazioko Zuzendaritza Nagusiaren ebazpenaren datak zehaztuko du. Ebazpen horren bidez, energia aurrezteko ziurtagiriak Energia Aurrezteko Ziurtagirien Erregistro Nazionalean inskribatzen dira.

2. Energiaren arloan eskumena duen Nafarroako Gobernuako organoak txosten bat emanen du honako hauek egiaztatzeko: egindako inbertsioak deskarbonizaziora bideratzen direla, kenkariaren oinarria eta kenkaria egiteko eskubidea noiz sortzen den.

3. Kenkariaren zenbatekoa ez da 1.500.000 eurotik gorakoa izanen”.

Zioa: Enpresen deskarbonizazio handiagoez lortzeko helburuarekin, kenkari bat ezartzen da jarduera ekonomikoari atxikitako ibilgetu materialeko elementu berrietan egindako inbertsioen gainean, baldin eta gutxienez energia-kontsumoa 30.000 kW orduko urteko murriztea badakarte.

24. ZUZENKETA

EH BILDU, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, GEROA BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru-lege proiektuaren hirugarren artikuluari hamaseigarren apartatua gehitzeko zuzenketa.

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Hamasei. Hogeita laugarren xedapen gehigarria gehitzea.

“Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Zergapizgarriak kentzea.

Zigor Kodearen 424. eta 286. ter artikuluetan aurreikusitako delituengatik epai irmoan kondanatutako entitateek ez dute eskubiderik izanen foru lege honetan ezarritako onura edo pizgarri fiskalak aplikatzeko, epaiak ezartzen duen aldian”.

Zioa: Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean jasotzen denez, agintari edo funtzionario publikoen eroskeria eta ustelkeriari dagokionez Zigor Kodearen 424. eta 286. ter artikuluetan aurreikusitako delituak egiten dituzten entitateek zerga-onurak edo pizgarriak izateko eskubidea galduko dute kondena-epai irmoan ezartzen den aldian.

25. ZUZENKETA

NAFARROAKO ALDERDI POPULARRA

TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Laugarren artikuluari gehikuntza egiteko zuzenketa. Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua, zeinaren bidez Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bategina onesten baita.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bateginaren (Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretua) 34.1.a) artikularen (Zerga-kuota) lehena, bigarrena eta hirugarrena puntuak aldatzen dira, eta aldaketak 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak:

34. artikulua. Zerga-kuota

“1. Zergaren kuota zein den zehazteko, aurreko kapituluan xedatutakoaren arabera kalkulatu-

ko likidazio oinarriari ondotik adierazten diren karga-tasetatik dagozkionak aplikatuko zaizkio, ahaidetasun maila eta eskurapenaren titulu juridikoa kontuan hartuta, aurreko artikuluan xedatutakoarekin bat zehaztuta.

a) Lehena. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, mortis causa eskurapenak direnean, jaraunspen, legatu edo beste edozein oinordetza-titulu bat tarteko; halaber, biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek zenbatekoak jasotzen dituztenean, 8.c) artikuluan jasotzen den aseguratuaren heriotza gertatzen denean.

Karga-tasa:

– 1.000.000 eurorainoko likidazio-oinarria: ehuneko 0.

– Gainerako oinarria: ehuneko 0,80.

Bigarrena. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, haien berariazko legediari jarraituz, dohaintza bitartezko eskurapenak direnean edo beste edozein inter vivos dohainikako negozio juridiko denean, bai eta 8. artikuluko d) eta e) letretan aipatzen diren biziaren gaineko aseguru-kontratuen onuradunek zenbatekoak jasotzen dituztenean.

Karga-tasa: ehuneko 0,80.

Hirugarrena. Aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko mortis causa eskuraketak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, aseguratuaren heriotza kasuan, 8.c) artikuluan aipatzen diren moduan.

Honako tarifa honetan aipatzen diren karga-tasak:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (EUROTAN)	KUOTA OSOA (EUROTAN)	GAINERAKO OINARRIA, ZENBATERAINO (EUROTAN)	APLIKATZEKO DEN TASA (EHUNEKO)
1.000.000	0,00	800.000	8,00
1.800.000	64.000,00	1.200.000	12,00
3.000.000	208.000,00	oinarriaren gainerakoa	16,00"

Zioa: jaraunse anitzek jaraunspenari uko egi-ten diote ez dutelako kostu fiskala beren gain hartzen ahal. Horrek ondare- eta gizarte-arazoa sortzen du, familia-ondasunak Komunitatearen esku gelditzen baitira edo zergak ordaintzeko gaizki saltzen baitira.

Karga handiak baliteke behartzea jabetzak, familia-negozioak eta aktiboak saltzera, zerga ordaintzeko. Tasa murrizteak aukera ematen du ondarearen jarraitutasunari eusteko, batez ere familia-enpresei eta ohiko etxebizitzetara dagokienez, eta familiak deskapitalizatzea eragozten da.

26. ZUZENKETA

UNIÓN DEL PUEBLO NAVARRO TALDE PARLAMENTARIOAK AURKEZTUA

Apartatu bat, hiru bis, gehitzeko zuzenketa.

Oinordetzen eta Dohaintzen gaineko Zergaren testu bategina onesten duen abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren 34.1.a) artikulua lehena eta bigarrena zenbakiak aldatzea eta hirugarrena eta laugarrena zenbakiak indargabetzea.

“1. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, herentzia, legatu edo beste edozein oinordetza-tituluren bidezko mortis causa eskuraketak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean, 8. c) artikuluan aipatzen direnak.

Karga-tasa:

– 400.000 eurorainoko likidazio-oinarria: ehuneko 0.

– Gainerako oinarria: ehuneko 0,80.

Bigarrena. Ezkontideak edo bikote egonkor bateko kideak, beren legeria espezifikoaren arabera, aurreko edo ondorengo zuzenak, odol bidezkoak, adoptatzaileak edo adoptatuak, dohaintza bidezko edo doako eta beste edozein negozio juridikoren bidezko inter vivos eskurapenak direnean, bai eta biziaren gaineko aseguru kontratuen onuradunek jasotako zenbatekoak direnean ere, 8. artikulua d) eta e) letretan aipatzen direnak.

Karga-tasa: ehuneko 0,8”.

Zioa: zuzenketa honen bidez, oinordetzen eta dohaintzen fiskalitatea berreskuratu nahi da Nafarroan, non, tradizioz, aurreko eta ondorengo ahaideen arteko translazioek gurasoen eta seme-alaben arteko transmisiora egokitutako tributazioa izan baitute, familiak babesteko. Gainera, gure ingurune hurbileneko —Euskal Autonomia Erkidegoa eta erkidego mugakideak— fiskalitateara egokitzen da, eta gertatu diren ondareen deslokalizazio-egoerak saihesten ditu; izan ere, horien azken emaitza izan da Nafarroaren diru-bilketan galera gertatzea.

Azkenik, oinordetzen kasuan, herentzia txikientzako salbuespena ezartzen da, egungoa baino handiagoa, zerga progresiboagoa egiteko.

27. ZUZENKETA

EH BILDU, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, GEROA BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko Foru Legearen bosgarren artikulua aldatzeko zuzenketa, laugarren apartatu bat gehitzeko.

Lau. 35.1.B) artikulua, 36. apartatua gehitzea:

"36. Abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuari atxikitako adinekoentzako elkarlaneko bizitokietan:

– Abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuari atxikitako adinekoentzako elkarlaneko bizitokieta-rako lurzorua, eraikina edo instalazioak erostea, eraikitzea, egokitzea edo birgaitzea.

– Abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuari atxikitako adinekoentzako elkarlaneko bizitokiaren eraikina edo bizitegi-multzoa obra berrikoa deklaratzeko.

– Hipoteka-maileguak, abenduaren 2ko 92/2020 Foru Dekretuari atxikitako adinekoentzako elkarlaneko bizitokietarako eraikina erosi, eraiki edo birgaitzea finantzatzeko erabiltzen direnak".

Zioa: Etxebizitza jabetzan edukitzeko eredu tradizionalaren ordezkotako formula gisa, elkarlaneko etxebizitza eta bizitokiaren eredu sozial berri horiek sustatzeko asmoz, aipatutako baldintzetan gehitzea

proposatzen da, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergatik salbuetsita, gure erkidegoan etxebizitza sozialen hornitzaileak handitzeko asmoz, eta beste araudi autonomiko batzuetan jasotako antzeko baldintzetan, non mota horretako proiektuak aurreratuagoak baitaude.

28. ZUZENKETA

EH BILDU, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN NAFARROA, GEROA BAI ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA

TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru-lege proiektuari hamargarren artikulua gehitzeko zuzenketa.

"Hamargarren artikulua. Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legea.

Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen 28.1. artikuluko bigarren paragrafoa aldatzen da. Hona hemen testua:

Salbuetsita egonen dira ondasunak eta eskubi-deak eskuratzeko eragiketak, baldin eta eragiketa horiek zuzenean bideratzen badira beren gizarte-eta estatutu-helburuak betetzera, bai eta 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 3.1.B) artikuluan aipatzen diren administrazio-emakidak eratzekoak ere".

Zioa: Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legearen 28.1 artikulua aldatzen da, Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren salbuespenaren eremua zabaltzeko apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren 3.1.B) artikulua araberaz zerga honi lotutako administrazio-emakidak eratzeari.

92/2020 Foru Dekretuaren babesean, elkarlaneko bizitoki eta etxebizitza proiektuak sustatzen dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak proiektu horiek eraikiko diren lurzati publikoen gaineko administrazio-emakiden adjudikaziodun izan daitezke. Aldaketa horren bidez, helburu soziala duten proiektu horiek jasaten duten karga fiskala arindu nahi da.

29. ZUZENKETA**EH BILDU, CONTIGO NAVARRA-ZUREKIN
NAFARROA, GEROA BAI ETA NAFARROAKO
ALDERDI SOZIALISTA
TALDE PARLAMENTARIOEK AURKEZTUA**

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzko foru-lege proiektuari bigarren xedapen gehigarria gehitzeko zuzenketa. Xedapen gehigarri bakarra lehen xedapen gehigarria izanen da aurrerantzean.

“Bigarren xedapen gehigarria. Aldaketen eraginarene ebaluazioa Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean.

Foru lege hau indarrean jartzen denetik lau urte igaro ondoren, Nafarroako Gobernuak hirugarren artikulua bigarren eta hirugarren apartatueta aurreikusitako aldaketek diru-bilketan izan duten eraginaren ebaluazioa egingen du, bai eta entitateei ehuneko 25eko karga-tasan tributatzeko eskatzen zaizkien baldintzen betetze-mailarena ere”.

Zioa: Foru Lege Proiektu honen hirugarren artikulua bidez egindako Sozietateen gaineko Zergaren erreformak sozietateen gaineko zergaren ondoriozko diru-sarrerak bultzatzen ote dituen ebaluatzeo, hori baita behean sinatzen duten taldeen helburua, baita enpleguari eustea, genero berdintasuna eta enpresetako lan arriskuen prebentzioa bultzatzea ere, Nafarroako Gobernuak azterketa bat egin beharko du, erreforma egin zenetik lau urte igaro ondoren.

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00019. Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko foru-lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Agintzea.

2. Foru-lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 168. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru-lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea aldatzeko

Nafarroako Gorteetako kide eta Nafarroako Alderdi Popularra (PPN) talde parlamentarioaren eledun den Javier García Jiménez jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako foru-lege proposamen hau aurkeztu du, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa, halatan bermatze aldera landa-eremuko zerbitzu jarraitua eta larrialdikoa.

HITZAURREA

Espainiako Konstituzioak, 43. artikuluan, osasuna babestua izateko eskubidea aitortzen du, eta botere publikoen ardurapean uzten du osasun publikoaren prebentzio-neurrien eta behar diren prestazio eta zerbitzuen bitartez antolatutako zaintzea. Konstituzioaren manu horrek pisu berezia hartzen du honakoa bermatzeari dagokionez: bizitokia zein ere den, osasungintzako zerbitzu-eremuko irispidea ekitatezkoa izan dadila.

Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legeak, 3. artikuluan, osasungintzaren sektorearen printzipio gidariak ezartzen ditu, eta horien artean nabarmentzen dira unibertsaltasuna, ekitatea eta irisgarritasuna. Funtsezko printzipio horiek kolokan jartzen dira landa-ingurune larrialdi-zerbitzuen itxiera proposatzen denean, halako moduz non lehen eta bigarren mailetako herritarrak bereizten baitira haien posta-kodearen arabera.

Nafarroako Gobernuak berak onetsitako Nafarroako 2024-2030 Osasun Planak helburu estrategiko gisa ezartzen du lurraldeen arteko ekitatea bermatu beharra osasun-zerbitzuetarako irispideari dagokionez, eta landa-ingurune biziaren aurre egiten dieten zailtasun bereziak aitortzen ditu. Konpromiso instituzional hori bateraezina da ingurune horietako larrialdiko arretarako zerbitzuen murriztapena dakarren edozein neurriekin.

Ebidentzia zientifikoak erakusten du minutu bakoitza erabakigarria dela denborari loturiko larrialdietan (miokardio-infarto akutua, iktusa, traumatismo larriak). Larrialdietako medikuntzan, "urrezko ordu" kontzeptuak esan nahi du hilkortasun eta hilgarritasuna esponentzialki areagotzen direla arretaren atzerapenarekin. Biztanleria sakanatua duten eta ospitaleetatik distantzia handira dauden lurraldeetan, larrialdietarako arreta-gune deszentralizatuak egotea ez da luxu bat, hil ala biziko premia bat baizik.

Nafarroak dituen demografia- eta lurralde-erabakigarriak haieiara egokituriko osasungintzazko erantzuna behar dute. Bertako populazioaren % 35 bizi da 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, non zahartze-indizea ((65 urte edo gehiagoko populazioa / 15 urte baino gutxiagoko populazioa) x 100) % 150 baino handiagoa baita landa-eskualde askotan. Orografia konplexuak (batez ere piriniotar eta aurrepiriniotar eskualdeetan), negualdiko eguraldi txarrak eta biztanleguneen sakabanaketak tankeratzen duten ingurune honetan, larrialdi-zerbitzuen hurbiltasuna kritiko gertatzen da.

Nafarroako Gobernuak proposaturiko erreformak aurreikusten du arreta iraunkorreko 11 puntu itxtea, eta horrek 200 herri baino gehiagotan izanen du eragina. Horrek esan nahiko luke gaueko zerbitzu hurbilik gabe geratuko liratekeela 45.000 biztanle inguru; horietako asko, zaurgarritasun handiko egoeran daudenak, haien adinagatik edo patologia kronikoengatik.

Efizientzia ekonomikoaren ikuspegitik, azterlan ugariak erakusten dute larrialdietako zerbitzu deszentralizatuak eusteak aurrezpen garbiak ekartzen dizkiola osasungintza-sistemari. Arreta goiztiarrak konplikazioei aurrea hartzen die, ospitaleratzeak murrizten ditu eta tratamendu konplexuago eta garestien beharra apaltzen du. Kostua-eraginkortasuna analisiak barne hartu behar ditu zuzeneko osasun-kostuak ez ezik, baita zeharkako gizarte-kostuak ere: senitartekoen joan-etorriak, produktibitate-galera, lurralde-kohesioaren narriadura eta despopulazio azkarra.

Foru-lege proposamen honek asmotan hartzen du landa-ingurune biziaren kalitatezko larrialdietako arretarako duten eskubidea juridikoki blindatzea, arreta iraunkorreko zerbitzuei eusteko irizpide objektibo eta aginduzkoak ezarriz. Justizia sozialeko neurri bat da, aitortzen duena osasuna ezin dela baldintzaturik suertatu bizitokiaren arabera, eta hiri-ingurunearen osasungintza-berme berberak merezi dituela landa-inguruneak.

Horregatik, Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak honako foru-lege proposamen hau aurkezten du:

Artikulu bakarra. Azaroaren 8ko 17/2010 Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean osasunaren alorrean pertsonen dituzten eskubideei eta betebeharrei buruzkoa, aldatzea.

Bat. 7. artikuluari 4. paragrafoa gehitzen zaio, honako testua izan dena:

"4. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak bermatuko du arreta iraunkorreko eta larrialdietako zerbitzuak egon daitezela landa-ingurunean, gutxieneko irizpide hauen arabera:

a) Oinarrizko osasun-eskualde guztiak arreta iraunkor presentziazez horniturik egon diren eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan.

b) Ez da ezein herrigunerik egon, bidaia-baldintza normaletan 30 minutu baino gehiagoz aldentuta dagoenik lehen arretarako eta egonkortzerako ahalmena duen larrialdi-arretako puntu batetik.

c) 2.000 biztanle baino gehiagokoak diren edo 10 herrigune baino gehiago barne hartzen dituzten eskualdeetan, nahitaez mantenduko da mediku eta erizainen presentzia fisiko iraunkorreko larrialdi-zerbitzu bat.

d) Landa-arreta iraunkorreko puntuak horniturik egon diren hil ala biziko larrialdiak artatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak, horien barne direla bizi-euskarri aurreratuko ekipamendua, oinarrizko diagnostikorako baliabideak eta larrialdi-zerbitzuekiko komunikaziorako bitartekoak".

Bi. 7. bis artikulua berria gehitzen da. Testu hau izanen du:

"7. bis artikulua. Landa-ingurune biziaren larrialdi-arretaren berariazko bermeak.

1. Landa-ingurune biziaren arreta jarraitu eta larrialdi-arretarako zerbitzuen antolaketan edozein aldaketa egiteko, beharrezkoak izanen dira:

a) Nafarroako Osasun Kontseiluaren nahitaezko txosten loteslea.

b) Osasun-inpaktuari buruzko txostena, ukituriko populazioaren hilkortasun eta hilgarritasunaren gaineko ondorioak ebaluatzen dituena.

c) Aurretiazko entzutea ematea ukituriko udalei, osasungintzako lanbide-elkargoei eta oinarriko eta larrialdietako arretako sozietate zientifikoei.

2. Ezin izanen da arreta jarraituko ezein puntu itxi edo horren ordutegian murrizketarik egin, honako hauek ez badira modu fede-emailean frogatzen:

a) Badagoela artatze-alternatiba bat, hil ala biziko larrialdietarako 15 minutu baino gehiagokoak ez diren erantzute-denborak bermatzen dituena.

b) Ukituriko populazioaren osasun-adierazleek objektiboki hobera egin dutela.

c) Irisgarritasuna mantendu edo hobetu egiten zaiola 65 urtez gorako edo mugimen urriko populazioari.

3. Nafarroako Gobernuak Nafarroako Aurrekontu Orokorretan urtero txertatuko ditu landa-eremuko larrialdi-arretako sarea mantentzeko behar adinako kredituak, zeinak ez baitira Osasun Departamentuaren guztizko aurrekontuaren % 3,5 baino gutxiagokoak izanen."

Hiru. 43. artikulua aldatzen da, 3. apartatu berri bat gehituta:

"3. Landa-eskualdeetan honako hauek izanen dira larrialdiko arretarako gehieneko erantzute-denborak:

a) Hil ala biziko larrialdiak: 15 minutu.

b) Larrialdi ez-geroragarriak: 30 minutu.

c) Larrialdi geroragarriak: 60 minutu.

Denbora horiek ez errespetatzeak kaltetuei eskubidea emanen die zerbitzu pribatuetan artatuak izateagatik ordaindutako gastuak itzul dakizkien eskatzeko."

Lehenengo xedapen gehigarria. Landa-larrialdietarako Arreta Gotortzeko Plana

Foru lege honek indarra hartu eta sei hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuak Landa-larrialdietarako Arreta Gotortzeko Plan bat onetsiko du, zeinak honako hauek bilduko baititu:

a) Beharrianen eta baliabideen mapa eguneratua.

b) Ekipamendu eta azpiegituretako inbertsioen Programa.

c) Lanpostu betegaitzak betetzeko pizgarritze profesionalerako Plana.

d) Larrialdiko eta osasun-garraioko zerbitzuekiko koordinazio-protokoloak.

Bigarren xedapen gehigarria. Oroit-idazki ekonomikoa

Foru lege honen inplementazioak urteko 8 milioi euroko zuzkidura gehigarri estimatua beharko du, zeina Osasun Departamentuaren kredituen kargura finantzatuko baita, ezertan galarazi gabe bidezkoak diren aurrekontu-berrantolamenduak.

Xedapen iragankor bakarra. Araubide iragankorra

Jadaneko arreta iraunkorreko puntuek jardunean iraunen dute, harik eta lehenengo xedapen gehigarrian aurreikusitako Landa-larrialdietarako Arreta Gotortzeko Plana erabat inplementatzen den arte.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan ezarritakoarekin kontraesanean dauden maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-25/MOC-00161. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita araudia aldatu dezan, talde ultra, erradikal eta biolentoei kirol-estadioetan, -ekitaldietan nahiz -esparruetan sartzeara eragozteko

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita araudia aldatu dezan, talde ultra, erradikal eta biolentoei kirol-estadioetan, -ekitaldietan nahiz -esparruetan sartzeara eragozteko.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Kirola, funtsean, balio positiboak sustatu behar dituen jarduera da, hala nola talde-lana, diziplina eta errespetua. Hala ere, batzuetan, lehia osasuntsu hori indarkeria- eta agresibitate-adierazpenek lausotzen dute. Fenomeno hori sakon ulertzea funtsezkoa da horri aurre egiteko eta kirol-idealak babesteko.

Azken egunetan jakin dugu Polizia Nazionalak Indar Gorri organizazioko kide batzuk atxilotu dituela Iruñean eta beste lau identifikatu dituela, indarkeriaz egindako lapurreta-delituen, lesio-delituen eta gorroto-delituen ustezko egile izateagatik, 2025eko abuztuaren 24an Valentziako hiru zaleri eraso egin zietelako. Gertakariak Sadar futbol-zelaiaren inguruetan gertatu ziren, Osasunak eta Valentziak jokaturako partida amaitu ostean.

Informazioen arabera, kolpe horien ondorioz, biktimetako bat Nafarroako Ospitale Unibertsitariora eraman behar izan zuten. Garezurreko, aurpegi-ko eta lepoko traumatismo bat zeukan, eta zauri ireki bat, zeinen ondorioz amnesia partziala eta konorte-galera izan baitzituen.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztu dugu:

- Nafarroako Parlamentuak zeharo errefusatzeko, arbuizatzeko eta gaitzesteko Indar Gorri organizazioko kideek Valentzia futbol-taldeko zaleei egindako eraso larriak.

- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du du araudia alda dezan, talde ultra, erradikal eta biolentoei kirol-estadioetan, -ekitaldietan nahiz -esparruetan sartzeara eragozteko.

- Nafarroako Parlamentuak publikoki zoriontzen ditu Polizia Nazionala eta segurtasun-indar eta -kidego guztiak, kirolean indarkeria prebenitzeko eta eremu horretan gertatzen diren erasoak ebazteko egindako ahaleginengatik.

Iruñean, 2025eko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

11-25/MOC-00162. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira eremu publikoetan eta erabilera publiko eremu batera ematen duten leku pribatuetan nicab eta burka deritzen jantziak erabiltzeko debeku orokor bat jaso dezaten Espainiako araubide juridikoan

EMILIO JIMÉNEZ ROMÁN JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Emilio Jiménez Román jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira eremu publikoetan eta erabilera publikoko eremu batera ematen duten leku pribatuetan nicab eta burka deritzen jantziak erabiltzeko debeku orokor bat jaso dezaten Espainiako araubide juridikoan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Talde Mistoko foru parlamentari eta VOXeko kide Emilio Jiménez Románek honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onesteko:

Zioen azalpena

Espazio publikoan emakumeen duintasuna eta herritarren segurtasuna babesteko aurkezten da mozio hau. Espainia europar zibilizazioa eratu duten nazio historiko handietako bat da. Tradizio kristauaren eta kultura greko-erromatarren zutabeetan oinarrituta, askatasuna, justizia, legearen inperioa eta guztion onuraren babesa bezalako printzipioek gidatutako bizimodua ahalbidetu du zibilizazio horrek. Esan daiteke soilik mendebaldean dagoela, sendotasunez, pertsonaren eskubideekiko gizarte errespetutsu bat, non gizonek eta emakumeek eskubide horiek berdintasunez baliatzen ahal dituzten, eta beren betebeharrak berdintasunez bete bidenabar.

Baina ondasun eta eskubide horiek mehatxupean daude, azken hamarkadetan Europako gizarteak markatzen ari den fenomeno batengatik, nola baita beste kontinente batzuetatik heldu diren immigranteen etorrera masiboa. Prozesu horren ondorio nabarmena izan da mendebaldeko gizartearen ohiturei eta portaerei arrotz –edo erabat kontrakoak– zaizkien ohitura eta portaerak inportatu direla.

Eragin islamista handiko herrialdeetako immigranteen etorrera masiboak auzi bat planteatzen du: nola jokatu behar duten mendebaldeko nazioetako botere publikoek, Espainiak kasu, argi baitago pertsona horietako batzuek herrialde horietako espazio publikoan ohitura islamistak inposatu nahi dituztela.

Tolerantziaren nozio faltsu batek ohituren normalizazio progresiboa ekar lezake –aurpegia estalita daramaten pertsonen zirkulazio masiboa, esate baterako–, baina horrek berekin ekarriko luke ohikotzat onartzea gure zibilizazioaren bizimoduarekin bateraezina den ohitura bat, herritarren segurtasunerako arrisku larriak ekartzeaz gain. Arrazoi horiek direla-eta, Frantziak 2010ean, Belgikak 2011n, Austriak 2017an, Danimarkak 2018an, Herbehereek 2019an eta Suitzak 2021ean –herri-kontsultaren bidez– espazio publikoan aurpegia ezkutatzaren duten jantziak erabiltzeko mugak ezarri dituzte. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak berak 2014ko uztailaren 1eko epaian adierazi zuen (S.A.S v. Frantzia kasua) horrelako neurriek "justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa" izan zezaketela.

Sinesmen-sistema hori inposatzeak mendebaldeko edozein herrialdetan onartezintzat joko lirakeen beste ondorio batzuk ditu, hala nola emakumeek familian eta gizartean duten erabateko mendekotasun-egoera.

Mendekotasun horrek, izan ere, adierazpide sinboliko ugari ditu, eta, zalantzarik gabe, janzkerarekin lotutakoak dira agerikoenak. Hala, islamismoak eratutako testuinguru kultural eta sozialak emakumearen aurpegia estaltzen duten arropak erabiltzea ezarri du, hala nola nicab-a edo burka (lehenbizikoaren kasuan, aurpegi osoa estalita begiak izan ezik).

Jantzi horiek erabiltzeak, ezbairik gabe, emakumearen identitate pertsonala bere erkidegoko bizitza kolektibotik desagerraraztea eta gizonaren mende jartzea dakar argi eta garbi. Bestalde, identitate pertsonalaren iluntze horrek beste ondorio mota batzuk ditu eremu publikoan, segurtasunerako arrisku larria dakarrelako.

Espainiaren kasuan, saihestu egin behar da jada asumitu ezin daitekeen atzerriko biztanleriaren hazkunde orokor batek ideologia islamistaren inposizioa ekartzea kasu askotan; izan ere, ideologia horrek ezaugarri du beste sinesmen eta ohitura batzuekiko intolerantzia. Beraz, afera ez dira sentimendu erlijiosoak, baizik eta mendebaldeko bizimoduarekin bateraezina den ideologia batek dakarren arriskua.

Ezinbestekoa da erantzun bat ematea Espainiako kultura eta gizartea sostengatzen dituzten printzipioak defendatzeko. Gainera, askatasuna eta berdintasuna ordenamenduaren balio nagusi gisa, pertsonaren duintasuna ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri gisa eta osotasun fisikoa eta segurtasuna oinarritzko eskubide gisa eratzten dituzten konstituzio-manuek Espainiako ordena publikoaren aurkakotzat jotzera eramaten dute nicab eta burka deritzen arropak erabiltzea. Jantzi horiek erabiltzeak arriskuan jartzen du identitate

pertsonala kontuan hartzean oinarritutako bizimoduarekin jarraitzea, bai identitate hori eduki eta adierazi ahal izateari dagokionez, bai norbera bizi den komunitatean ezaguna izateari dagokionez. Espainiako gizarteak ezin du onartu, Mendebaldekoari arrotza zaion eta etsaitasunezkoa zaion ideologia baten babesean, bizitza sozialetik emakumeen eta neskatoen identitatea ezabatu nahi izatea, eta, ondorioz, pertsona diren aldetik duten duintasuna erasotzea.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkeztzen dugu:

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu eremu publikoetan eta erabilera publikoko eremu batera ematen duten leku pribatuetan nicab eta burka deritzen jantziak erabiltzeko debeku orokor bat jaso dezaten Espainiako araubide juridikoan.

- Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu behar diren neurriak har ditzaten, indarkeriaz, larderiez edo bestelako edozein bortxa-bidez nicab eta burka izeneko beloak erabiltzea ezartzen duena auzipetua izan dadin.

Iruñean, 2025eko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Emilio Jiménez Román

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00421. Galdera, proiektu teknikoki bideragarriak eta hautagarriak eduki arren, 13 gazte aurrekontu-aurreikuspen faltagatik Lurberri planetik kanpo uzteari buruzkoa*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galdera, proiektu teknikoki bideragarriak eta hautagarriak eduki arren, 13 gazte aurrekontu-aurreikuspen faltagatik Lurberri planetik kanpo uzteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikia dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarren Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Diskurtso instituzionala “belaunaldi-erleborako laguntzan” oinarritzen den honetan, proiektu teknikoki bideragarri eta hautagarriak zeuzkaten 13 gazte kanpoan utzi dituen aurrekontu-aurreikuspen falta gertatu da. Nola esplikatzen du hori Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak?

Zergatik ez da oraindik aparteko aurrekontu-krediturik antolatu horiek berehala sartzeara ahalbidetzeko, UAGNk eskatzen duen bezala? Zer neurri zehatz hartu nahi du departamentuak Lurberri planaren hurrengo deialdietan egoera hori errepikatuko ez dela bermatzeko?

Iruñean, 2025eko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

11-25/PES-00422. Galdera, 2025eko aurrekontu orokorretako “547001 52300 6057 312804 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Transformazio digitalari buruzko plana” aurrekontu-partidari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, 2025eko aurrekontu orokorretako “547001 52300 6057 312804 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Transformazio digitalari buruzko plana” aurrekontu-partidari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2025eko aurrekontu orokorretako “547001 52300 6057 312804 Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa, Transformazio digitalari buruzko plana” aurrekontu-partidari dagokionez, zer dela-eta ez da ezer bete gaur arte eta zer aurreikuspen darabilzue gogoan partida horretako 835.142 euroak betetzeari begira?

Iruñean, 2025eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00423. Galdera, Nafarroako Nutrizio Estrategia taxutzeari buruz 2025eko aurrekontu orokorreari aurkeztutako 390. zuzenketari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, Nafarroako Nutrizio Estrategia taxutzeari buruz 2025eko aurrekontu orokorreari aurkeztutako 390. zuzenketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2025eko aurrekontu orokorreari egindako 390. zuzenketari dagokionez (Osasun Departamentua), zer lan egin da orain arte Nafarroako Nutrizio Estrategia taxutzeko?

Iruñean, 2025eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

11-25/PES-00424. Galdera, Nafarroako Ubideko proiektu fotovoltaikoan egindako aurrerabideari buruzkoa

OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Nafarroako Ubideko proiektu fotovoltaikoan egindako aurrerabideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Oihan Mendo Goñik, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, hona-

ko galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

2022an, Nafarroako Ubidearen gainaldean proiektu fotovoltaiko bat instalatzeko proiektua iragarri zuen Nafarroako Gobernuak. Proiektu horrek azpiegitura horretako 9 kilometro estaltzea proposatzen zuen, eta urtean 28,5 GWh ekoizteko ahalmena izanen luke.

2025eko azaroaren 17an, ez dago proiektu horretan egindako aurrerapenei buruzko nobedarik.

Zertan da Nafarroako Ubidearen proiektu fotovoltaikoa?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zer epe eta inbertsio darabil gogoan Nafarroako Ubidearen proiektu fotovoltaikoa gauzatzeari begira?

Iruñean, 2025eko azaroaren 17an

Foru parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

11-25/PES-00425. Galdera, lehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarritako kanpo-auditorien baldintza-agiriari buruzkoa

CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak egindako galdera, lehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarritako kanpo-auditorien baldintza-agiriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Lehendakariak 2025eko ekainaren 12an iragarri zuen kanpo-auditoriak eginen zirela, egun horretan ezagutu zen UCOn txostenean agertzen diren enpresei Nafarroan esleitutako obra publikoen esleipenak eta kontratuak aztertze. Taxutu al du jada Nafarroako Gobernuak kanpo-auditoria horien baldintzak, betekizunak eta zehaztapenak jasoko dituen agiria?

Abiarazi al da horiek lizitzatzeko prozedura?

Zein da zenbatekoa?

Noiz esleituko direla aurreikusten duzue?

Baldintza-agiriak oraindik taxutu ez badira, noiz aurreikusten duzue egonen direla lizitatzeko prest?

Iruñean, 2025eko azaroaren 19an

Foru parlamentaria: Cristina López Mañero

11-25/PES-00426. Galdera, itxaron-zerrenden datuen atzera begirako zuzenketari buruzkoa

LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, itxaron-zerrenden datuen atzera begirako zuzenketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2025eko ekainean, Osasun Departamentuak itxaron-zerrendak jendaurrean aurkezteko beste modu bat ezarri zuen; besteak beste, zerrendatik 5 espezialitate kentzea erabaki zen (Geriatría, Genetika, Psikiatria, Nutrizioa eta Minaren Unitatea). Osasun Departamentuak noiz zuzenduko ditu atzera begira itxaron-zerrendetako datuak, 2025eko ekaina baino lehen argitaratutako zerrendetatik 5 espezialitate horiek kentzeko, kasuan kasuko konparazioak egin ahal izan daitezen?

Iruñean, 2025eko azaroaren 20an

Foru parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ACOP-00029. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuaren Domina ematen baitzaie Palestinako Estatuak Espainian duen enbaxadore Husni Abdel Wahed jaunari eta Salam Gaza Nafarroa elkarteari

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Palestinako herriaren aurka egindako basakeriaren kontra mobilizatu diren Nafarroako pertsona, entitate, kolektibo eta erakunde guztiak aitortzen ditu eta esker ona adierazten die.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak Palestinako herriari laguntzeko eta harekiko elkartasunean gure erkidegoko hainbat elkarte, erakunde eta entitate egiten ari diren lana nabarmentzen du.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak uste du beharrezkoa dela instantzia guztietatik, baita nazioarteko komunitetetik ere, lanean jarraitzea Israelgo Gobernuak palestinarren aurka egindako basakeriarekin amaitzeko.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak konpromisoa hartzen du Palestinako herriarendako bakea aldarrikatzera bideratutako jarduerak eta ekimenak egiten jarraitzeko.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bere sariarik gorena den Nafarroako Parlamentuaren Domina ematen dio Palestinako Estatuak Espainian duen enbaxadore Husni Abdel Wahed jaunari, Palestinako herriarekiko elkartasunez, bai eta Salam Gaza Nafarroa elkarteari ere, Palestinari laguntza humanitarioa ematen dioten eta gatazka honetan palestinarren aurka egiten ari den basakeria salatzeko Nafarroan mobilizatu diren kolektibo, erakunde eta pertsonen ordezkari gisa.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/ACOP-00030. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez bat egiten baitu HIESaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak bat egiten du HIESaren Aurkako Mundu Egunaren ospakizunarekin; hori dela-eta, Hiesaren aurkako Nafarroako Batzorde Hiritarrarekin eta Sare Elkartearekin

batera, ekitaldi bat antolatu du Legebiltzarraren atalondoan abenduaren 1ean, astelehena, 09:00etan.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren ustez, 43 urteko epidemiaren ondotik, beharrezkoa da prebentzio konbinatuan lan egiten jarraitzea. Diagnostiko goiztiarra eta tratamenduari goiz ekitea dira biderik onenak pertsonen osasuna babesteko eta kutsatzeak prebenitzeko.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak GIBarekin loturiko Diskriminaziorik Ezaren eta Tratu Berdintasunaren aldeko Gizarte Itunak biltzen dituen neurriak bultzatzen jarraitzearen alde egiten du.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren konpromisoa da arreta soziosanitario banakatua bermatzea GIBdun diren pertsonen, kontuan hartuz haien berezitasunak, bereziki emakumeen eta adinduen kasuan.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak konpromisoa hartzen du GIBarekin bizi diren pertsonen

diskriminazioa desagerrarazteko neurriak bultzatzen jarraitzeko.

6. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabaki du bere fatxada abenduaren 1ean gorritz argiztatzea.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria. Unai Hualde Iglesias

11-25/ACOP-00031. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, zeinaren bidez babesa eta elkartasuna erakusten baitie Gasteizko Kliniketan lan egiten duten profesionalen eta erabiltzaileen guztien, eta, oro har, sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzea erabakitzen duten emakume guztien, bai eta lan hori posible egiten duten pertsona guztien ere

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehenengoa:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak babesa eta elkartasuna erakusten die Gasteizko Kliniketan lan egiten duten profesionalen eta erabiltzaileen guztien, eta, oro har, sexu- eta ugalketa-eskubideak baliatzea erabakitzen duten emakume guztien, bai eta lan hori posible egiten duten pertsona guztien ere.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak irmoki arbuiazen du talde ultra erlijiosoek, abortuaren aurkakoek edo antzekoek egindako jazarpen-adierazpen edo -egintza oro.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak abortatzeko eskubidea Konstituzioan blindatzearen alde agertzen da, emakumeek haurdunaldia borondatez eteteko duten eskubidea aitortuz. Botere publikoek beti bermatuko dute eskubide horren egikaritza, ziurtatuz benetako berdintasun-baldintzetan emango dela eta emakumeen oinarritzko eskubideak babesten direla.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak abortu librea, segurua eta sistema publikoan bermatzeko beharra adierazi du.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria. Unai Hualde Iglesias

11-25/PTCI-00011. Mahaiaren erabakia, Palestinako Estatuak Espainian duen enbaxadoreari eta Salam Gaza Nafarroa Elkarteari Nafarroako Parlamentuaren Domina emateko

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Aski ezaguna denez, azken bi urte eta erdian Israelgo Gobernuak Gazako zerrendako palestinarren aurka egin duen sarraski ikaragarriaren lekuko izan gara. Eraso militar horren ondorioz, milaka pertsona hil dira, biztanleriaren zati handi bat lekuz aldatu da eta azpiegitura funtsezkoenak suntsitu dira.

Nafarroako gizarteak haserrez eta ezintasunez ikusi ditu komunikabideen bitartez imajinatu daitezkeen krudeltasun-muga guztiak gainditu dituen gatazka baten irudi gehiegizkoak, mundu osotik bidalitako laguntza humanitarioaren blokeoak barne.

Sumin horrek Nafarroako gizartearen mobilizazio masiboa eragin du, hainbat entitate eta elkarten antolatutako protesta-ekitaldien bidez bideratua. Palestinako herritarren aurkako giza eskubideen urraketa ikaragarria salatzeko ekintzek ere bultzada eman diote erkidego honetako ordezkaritza-erakundeek aldetik akordio zabalak lortzeari, egoera gaitzetsiz eta nazioarteko komunitatearen inplikazioa eskatuz, gizarteko sektore zabalek benetako genozidiotzat jotzen duten egoera geldiarazteko.

Duela aste batzuk lortutako nazioarteko akordioek itxaropenerako bidea ireki zuten, baina, tamalez, oraindik ere indarkeriako egoerak eta hilketa indiskriminatuak gertatzen ari dira zerrendan, eta, horregatik, beharrezkoa da behin betiko bake iraunkorra eskatzea, amesgaizto horri amaiera emateko.

Horrenbestez, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Nafarroako Parlamentuaren domina palestinar herriari ematea. Domina Palestinako Estatuak Espainian duen enbaxadore ezohiko eta ahalguztidunari eta Salam Gaza Nafarroa elkarteari emanen zaie, Palestinaren aurka egindako basakeriaren kontra mobilizatu diren Nafarroako pertsona, entitate, kolektibo eta erakunde guztiei aitortza eta esker ona adierazteko. Ekitaldia 2025eko abenduaren 1ean egingen da, astelehenarekin, 12:00etan, Osoko Bilkuren aretoan.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-24/GPER-00022. Nafarroako Parlamentuko lan-egutegia eta Erregistroaren ordutegia aldatzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko azaroaren 24an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak 2025eko azaroaren 20an idazki bat aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, non eskatzen baitu 2025eko abenduaren 4an eta abenduaren 22tik 2026ko urtarrilaren 9ra bitarte goizeko lanaldia ezartzea, betiere Parlamentuko lan-beharriaz horretarako bidea ematen badute.

Kontuan izanik abenduaren 4an eta abenduaren 22tik 2026ko urtarrilaren 5era bitarte ez dagoela aurreikusita jarduera parlamentario, eta kontuan izanik 2025eko abenduaren lehen astean behar diren langileek ohiko lanaldiaren barruan bete beharko dituztela Nafarroaren Egunaren ospakizuna dela-eta Nafarroako Parlamentuan aurreikusitako jarduerak, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Mahaiaren 2024ko azaroaren 11ko erabakiaren bidez onetsitako lan-egutegia aldatzea; halatan, lanaldia goizekoa izanen da 2025eko abenduaren 4an eta 2025eko abenduaren 22tik 2026ko urtarrilaren 5era bitarte, betiere zerbitzuen beharriaz horretarako bidea ematen badute, beraz, arratsaldeaz jarduerak egonez gero, langileek ohiko lanaldiaren barruan bete beharko dituzte.

2. Aldatzea Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren arreta presentzialeko ordutegia, Mahaiaren 2024ko azaroaren 11ko erabakiaren bidez onetsia; halatan, 2025eko abenduaren 4an eta 2025eko abenduaren 22tik 2026ko urtarrilaren 5era bitarte, 09:00etatik 14:30era bitarte egonen da zabalik, betiere zerbitzuen beharriaz horretarako bidea ematen badute.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2025eko azaroaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias